


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,6 jaitsi ziren 2008ko irailean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko iraila, 2007koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %7,3 gehitu ziren.

2008ko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,6 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta iraileko urte arteko tasa %7,3ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*) Gehikuntza iraileko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2008ko irailean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, berriz, %0,8 jaitsi ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaerak izan zituzten, baina indarrean badago alderik: aurreko hilaren aldean % -0,6 jaitsi zen Eraikuntza eta % -1,3 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Eraikuntzako lehengaien kostuak %6,8 hazi dira eta Obra Zibilekoenak %10,7.

Irailean, abuztuaren aldean, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan dituzte: energia elektrikoa eta gasa (%2,6), kautxu eta plastikoa (%0,2), zurgintza (%0,2) eta makineria (%0,2) adarretako lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten ondokoek: petrolio finntzea (%-3,6), ez-metalezko meak (%-1,7), metalurgia (%-0,6), metalezko gaiak (%-0,3) ez-metalezko industria (%-0,2) eta altzarigintza (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasarik handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: energia elektrikoa eta gasa (%29,4), petrolioia fintzea (%28,7), metalurgia (%12,6), ura (%11,4) eta ez-metalezko meak (%10,0). Bestalde, urteko arteko prezioetan (2008ko iraila, 2007koaren aldean), igoera txikiagoak izan zituzten material elektronikoa (%-2,6), ez-metalezko industria (%1,4) eta zurgintzako (%2,2) lehengaiak.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2008ko iraila.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,1	-0,6	7,3	6,4
ERAIKINAK	116,2	-0,5	6,7	5,9
OBRA ZIBILA	120,4	-0,9	9,5	8,5
LEHENGAIEN KOSTUA	117,3	-0,8	7,6	6,5
ERAIKINAK	116,1	-0,6	6,8	5,8
OBRA ZIBILA	121,9	-1,3	10,7	9,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es